

ISSN: 2530-6561
2023ko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Ekofeminismoak Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea

Amaia Pérez Orozco

Ekofeminismoak

Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea

Amaia Pérez Orozco,
Colectiva XXK. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza.
amaia@colectivaxxk.net

Aurkibidea

1. Sarrera	8
2. Abiapuntua	9
3. Bizitzaren iraunkortasuna	10
4. Gorputza-lurra lurraldea	13
4.1. Bizitzaren oinarri materialak	13
4.2. Gorputza-lurra lurraldearen babesa eta subiranotasuna	14
5. Kapitala-bizitza gatazka	16
5.1. BBVAh eta bizitzen balioa	16
5.2. (Ongizate) estatuak ez du gatazka konpontzen	19
6. Zainketa	21
7. Trantsizio ekofeminista	24
8. Bibliografia	27

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Iker Etxano
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Xabier Gainza
Amaia García
Itziar Mujika
Unai Villena
Iker Zirion

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Ekofeminismoak: Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea

Egilea: Amaia Pérez Orozco

hegoak zabalduz - 32. zk. 2023ko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Ekofeminismoak: Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea

Laburpena: Ekofeminismoa da ekologismoa eta feminismoa uztartzen dituen eremu bat, zeinaren emaitza bi ikuspegi batura hutsaz haragoko begirada bat baita. Askotariko ekofeminismoak daude. Testu honek ekofeminismoaren ikuspegietako bat du ardatz, bizitzaren iraunkortasunaren ideia ingurukoa, hain zuzen. Zibilizazio- eta ekologia-krisiaren aurrean, kapitalismo berde digital berri bat ari da ezartzen, zeina, irtenbide bat izan beharrez, gizartearen eta ekologiaren kolapsoa bizkortzeko modu bat baita, ekofeminismoaren iritziz. Nola eragin dezakegu haustura-une honetan, bizitzaren sarea defendatzeko? Testu honetan, ekofeminismoak sistemari buruz egiten duen irakurketa kritikoa garatzen da, funtsezko lau kontzeptu ekarriz: bizitzaren iraunkortasuna, gorputza-lurra lurraldea, kapitala-bizitza gatazka eta zainketak. Azkenik, labur-labur, kontraproposamen ekofeministaren xehetasun batzuk aipatuko ditugu; hain zuzen ere, erabateko larrialdiko une honetan bizitza defendatzen saiatzen ari den proposamen bat da.

Gako-hitzak: Ekofeminismoa, bizitzaren iraunkortasuna, gorputza-lurra lurraldea, kapitala-bizitza gatazka, zainketak.

Ecofeminisms: Sustaining life and caring for the body-earth territory.

Abstract: Ecofeminism is that space in which ecologism and feminism converge, resulting in a view that goes beyond the simple sum of the two perspectives. There are diverse ecofeminisms. This text focuses on one of their approaches, the one that is articulated around the idea of the sustainability of life. In the face of the civilizational and ecological crisis, a new form of digital green capitalism is being installed, which, far from being a solution, for ecofeminism is a way of accelerating ecosocial collapse. How to influence this moment of rupture in order to defend life? This text develops ecofeminism's critical reading of the system through the introduction of four key concepts: the sustainability of life, the body-earth territory, the capital-life conflict and care. Finally, it includes a brief outline of the ecofeminist counter-proposal that attempts to defend life at a time of absolute urgency.

Key words: Ecofeminism, sustaining life, body-land territory, capital-life conflict, care.

1. Sarrera

Ekofeminismoa da ekologismoa eta feminismoa uztartzen dituen eremu bat, zeinaren emaitza bi ikuspegi batura hutsaz haragoko begirada bat baita. Mundua behatzeko modu horrek kezka bikoitza du: ekosistema eta genero-desparekotasuna. Era berean, apustu politikoa da, eta aldaketa sakonak lortu nahi ditu, naturarekiko orekan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko. Oinarrizko abiapuntu partekatu horretatik harago, ekofeminismoa kosmogonia bat izan daiteke, espiritualtasun mota bat, bizitzeko eta irauteko modu bat. Ez dago ekologismo bakar bat; ez dago feminismo bakar bat; are gutxiago ekofeminismo bakar bat.

Mirene Begiristainek (2021) sei ekofeminismo mota identifikatzen ditu, eta zenbait une historiko eta/edo lurralderekin lotzen ditu: ekofeminismo erradikal-esentzialista (1960ko eta 1970eko hamarkadak, bereziki Estatu Batuetan garatuta); ekofeminismo kultural-espiritualista (1970eko hamarkada, hainbat lurraldetan, batez ere hegoalde globalean, esaterako, Indian eta Brasilen); feminismo konstruktibista (1980ko eta 1990eko hamarkadak, iparralde globaleko hainbat lurraldetan); ekologia politiko feminista (1990eko hamarkada, iparralde global anglofonoa); ekofeminismo liberala (garaikideagoa eta indarrean, eta batez ere nazioz gaindiko edo nazioarteko erakundeetan dagoena, Garapen Jasangarriko Helburuekin eta Itun Berde Berriekin lotuta); eta ekofeminismo sozialista-bizitzaren iraunkortasuna (2000. urtetik aurrera).

Eskuetan dituzun orrietan azken begirada hori landuko dugu. Garrantzitsua da horrela ulertzea: ekofeminismoa askotarikoa da. Nekez hitz egin diezaguke inork ekofeminismoaren aniztasun osoaz eta, jakina, ezinezkoa da honelako testu labur batean halakorik egitea. Esku artean duzuna egon daitezkeen ikuspegi ugarien arteko ikuspegi bat da. Begiristainek gaztelaniadun iparralde globalean kokatzen du ikuspegi hau. Izan ere, lurralde horretan bizi da testu honen egilea, eta haren abiapuntua oso iparraldekoa, hirikoa eta zuria da. Funtsezkoa da muga horiek onartzea, baina, era berean, garrantzitsua da adieraztea Abya Yalako¹ feminismoek gero eta eragin handiagoa dutela ikuspegi honetan, eta haiekin aliantzan sortzen dela. Esan daiteke bizitzaren iraunkortasunaren ekofeminismo sozialista gaztelania eta portugesa hitz egiten duten lurraldeetan eraikitzen dela, Atlantikoaren alde batean zein bestean.

1 Latinoamerika eta Karibea izendatzeko erabiltzen den termino prehispanikoa da.

2. Abiapuntua

Ekofeminismoak hiru ezaugarri ditu. Lehenik, bi korrante biltzen ditu. Alde batetik, *ekologismo soziala* dago, zeina, ingurumen-gaiez gain, gai sozioekonomikoez arduratzen baita (hitz lauz esanda, naturaren egoeraz eta jendearen egoeraz kezkatzen da). Eta, bestetik, inola ere liberala ez den feminismo bat daukagu, antikapitalistatza jo daitekeena; haren xedea ez da sisteman berdintasuna bilatzea, sistema eraldatzea baizik (sarritan esaten den moduan: *ez dugu tartaren erdia nahi, errezeta aldatu nahi dugu*). Bigarrenik, merkatu kapitalistak begiradaren zein aldaketarako proposamenaren erdigunetik kentzeko nahia da abiapuntua. Gizakien eta gizakiak ez direnen bizitzak nola mantentzen diren ulertu nahi du, planeta osoa multzo bizia dela ulertuz. Eta gaur egungo sistema irauli nahi du, zeina metaketaren merkatu-logika batean oinarritzen baita, eta haren ustez bioziden moduan funtzionatzen baitu: bizitza zaindu beharrean, eraso egiten dio. Hirugarrenik, munduan nagusi den sistema *menderakuntza-sistema anizkoitza* dela ulertzen du, hartan ez baitago desparekotasun-ardatz bakar bat. Maila analitikoan, intersektionalitatea eta menderakuntzaren matrizea aipatzen ditu dauden pribilegio/zapalkuntza bektoreen elkarguneaz aritzeko: klasea, generoa, arrazializazioa, etab. Eta, hizkera arrunta erabilia, sarritan, *Gauza eskandalagarri hori* esaldia erabiltzen du, kapitalismo heteropatriarkalaz, kolonialistaz, arrazistaz eta ekozidaz aritzeko. *Gauza eskandalagarri hori* modernitate eurozentrikoak inposatu digu, gutxienez Abya Yalaren konkistatik, eta garapena edo, hobeto esanda, *garapentxarra* (gaztelaniaz, *maldesarrollo*) ezartzen du munduko lurralde guztietan lortu beharreko helburu homogeneo gisa.

Ekofeminismoaren ustez, gaur egun larrialdi bikoitza dugu aurrez aurre: zibilizazio-krisia eta kolapso ekologikoa. *Gauza eskandalagarri hori* ahulgunez josita dago. Krisia alderdi askokoa (sozioekonomikoa, politikoa eta etikoa) eta metatua da (ez da koiunturala, ezta iragankorra ere). Hain da sakona, ezen zibilizazio-ereduaren krisia dela esan baitezakegu. Kolapso ekologikoak esan nahi du materialen erauzketa txikiago batekin eta energia gutxiagorekin biziko garela, planetan jada ez baitago *garapentxarrak* eskatzen duen adina.

Kolapso ekologikoa eta zibilizazio-krisia elkartu zaizkigu eta, beraz, ezinbesteko trantsizio baten aurrean gaude. Galdera ez da mundua aldatzea nahi dugun, dagoeneko aldatzen ari baita, baina norantz? Hau da galdera: norantz goaz gizateria eta planeta gisa? Trantsizio horren norabidea eztabaidagai da, eta funtsezko hirugarren faktore baten esparruan gertatzen da: kapitalismoak bere burua leheneratzeko duen ezintasuna, ez baita gai beste metaketa-uhin luze bat martxan jartzeko. Hitz sinpleekin esanda: azken astinduak ematen ari da. Baina bizidun guztiak berekin eramateko gaitasuna du.

Gaur egungo egoerari buruzko irakurketa hori egiten du ekofeminismoak; diskurtso ofizialen oso bestelakoa da, baita ezker instituzional gehienek diskurtsoen aldean ere. Haienez, ez dago zibilizazio-krisirik; aldiz, hazkunde *ekonomikoa* suspertzeko zailtasunak ditugu, baina zuzendu daitezke. Krisi ekologikoaren alderdi bakar bat onartzen dute: klima-aldaketa. Hori ere konpon daiteke, sektore berri batzuk bultzatuz, eta horiek ahalbidetuko dute, hain zuzen, hazkundera eta, beraz, ongizate leheneratzea. Digitalizazioa eta energia fosiletatik berriztagarrietara igarotzea dira proposamen horren bi zutabeak. Xedea da trantsizio bikoitza martxan jartzea, energetikoa eta digitala, giza garapen jasangarria lortzeko mundu osoan. Ekofeminismoaren ustez, proposamen hegemoniko horrek *kapitalismo berde digital* berri bat ezarri nahi du, baina, irtenbide bat izan beharrean, gizartearen eta ekologiarren kolapsoa bizkortzeko modu bat da.


Testu honetan, ekofeminismoak sistemari buruz egiten duen irakurketa kritikoa garatu nahi da, funtsezko lau kontzeptu ekarriz: bizitzaren iraunkortasuna, gorputza-lurra lurraldea, kapitala-bizitza gatazka eta zainketak. Azkenik, labur-labur, kontraproposamen ekofeministaren xehetasun batzuk aipatuko ditugu; hain zuzen ere, larrialdiko une honetan bizitza defendatzen saiatzen ari den proposamen bat da.²

2 Irakurketa errazte aldera, ez ditugu sistematikoki txertatu testuarekin lotutako aipamen edo erreferentzia bibliografikoak. Bildutako ideiak multzoan gara lantzen, eta bibliografian jasotako erreferentzien bidez sakondu daiteke horien inguruan.

3. Bizitzaren iraunkortasuna

Bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzea da ekofeminismoaren proposamena, merkatu kapitalistek gaur egun duten lehentasun analitiko eta politikoarekin amaitzeko.

Merkatuak mundua begiratzeko eta ulertzeko dugun moduaren erdigunean egon ohi dira: gizarteaz pentsatzean, ekonomia lehenesten dugu eta, aldi berean, ekonomiaren ideia dirura murrizten dugu; hala, ordaintzen denari deitzen diogu lana, eta ongizatea kontsumitzeko ahalmenarekin parekatzen dugu. Motor ekonomikoa enpresak direla uste dugu, ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituztelako eta kontsumitzeko (hau da, bizitzeko) aukera ematen digun lana sortzen dutelako. Iruditzen zaigu pertsonak beren etxeetan daudela, subjektu pasibo gisa, ekimen pribatuari esker sortutako hazkunderaren zain. Natura baliabide bat da eta ekoizteko eta hazteko erabiltzen da.




Iturria: egileak egina.

Ikusmolde hori izanik, ezinezkoa da geure buruari galdera sakonagoak egitea bizitzari berari buruz (adibidez, ulertzea ongizatea oso prozesu konplexua dela, eta faktore materialak eta emozionalak nahasten direla haren baitan) edo sistemari buruz (adibidez, zalantzan jartzea oinarritzko ondasunak modu kolektiboan eta merkatutik kanpo eskuratzeko aukera bermatuta ez egotea). Era berean, ezin ditugu agerian jarri dauden askotariko desparekotasunak (adibidez, ordaindu gabeko lanen banaketa bidegabea) eta gatazka sistemikoak (adibidez, ez da kasualitatea lanik funtsezkoenak –nekazaritza eta zainketa-lanak, esaterako– okerren ordaintzen direnak izatea).

Merkatuak erdigunean jartzen direnean, ikusten ez ditugun hainbat alderdi sozioekonomiko egoten dira, eta, hain justu, merkataritza-zirkuituak mantentzen dituztenak izaten dira. Batetik, (merkatu) produkzioak ezkutuko beste alderdi bat du: erreprodukzioa (zainketa ere esaten zaio, geroago ikusiko dugun moduan). Ezkutuko beste alderdi horretan ere banaketa oso desorekatua da. Lanaren banaketa sexual handia dago, eta klase sozialak eta arrazializazioak ere eragina dute banaketa horretan. Baina, gainera, ezkutuan egon behar du sistemak funtzionatzen jarrai dezan. Bizitzari ez dio merkatuaren esku ikusezinak eusten, benetako bizitzatik hurbilago eta *merkatuaz honantzago* dauden eremu

sozioekonomikoetan jarduten duen *eguneroko bizitzako esku ikusezinak* baizik, etsaitasunezko testuinguru batean bizitza aurrera ateratzeko erantzukizuna bere gain hartzen baitu. Sistema iceberg baten irudia erabiliz deskriba daiteke.



Iturria: egileak egina.

Bestalde, zerbait ekoizten dugulako ideia bera, aurrez ez zegoen aberastasun bat sortzen dugulako ideia, fantasia antropozentriko bat da, eta ezkutatu egiten du lurrian lehendik zegoena erazi eta eraldatzeko energia erabili eta prozesuan zehar hondakinak sortu besterik ez dugula egiten. *Produkzioaren fantasia* hori aberastasun-neurri artifizial batean oinarritzen da: diruan. Dirua (pertsonok existitzen dela sinetsi ezean, existitzen ez den zerbait) pilatzen dugunean, aberastasuna sortzen ari garela eta hazten ari garela uste dugu. Sistema sozioekonomikoa azpisistema irekia da (lurrian, bere barrutik kanpo dagoenaz elikatzen da, eta zaborra eta energia narriatua botatzen dizkio), eta planeta itxi batean dago (ez du materialik jasotzen kanpotik, ezin du zaborra kanpora bidali, eta kanpotik oso energia gutxi iristen da erabiltzen denaren aldean). Mugak dituen planeta batean, ezer ezin da mugarik gabe hazi, baina diruaren eraginez baietz pentsatzen dugu, muga horiek ahaztea eragiten digu eta.

Ikuspegi hegemonikoaz bestela, ekofeminismoak bere kezken erdigunean jartzen du gizakien eta gizaki ez direnen bizitzaren iraunkortasuna. *Bizitza merezi duten bizitzak* izateko baldintzak zer prozesuk ezartzen dituzten galdetzen dio bere buruari. Ekofeminismoaren ustez, bizitza ez da kasualitatez, ez magiaz, ez Jainkoaren esku-hartzearen ondorioz sortu. Bizitza aukera bat da, baina ez da ziurtasun bat: bizitza egoteko, egunez egun sortu behar dugu, beti taldean eta bizirik dagoen lur baten zati gisa. Bizitza *zaurgarritasuneko, interdependentziako* eta *ekodependentziako* errealitate bat da. Ekonomia ez da meritokraziaren eremua, non bakoitza bere kabuz moldatzen den eta gainerakoekin lehiatzen den, natura baliabide gisa erabiliz. Ekonomia sare bat da, gizarte-egitura interdependente bat, zeina giza bizitzaren zaurgarritasunaz arduratzen baita, ekosistemaren mendekoa delako.

Bizitzari eusteko prozesuei buruzko kezka horretan, garapen-eredua benetan *garapentzarreko* eredu bat dela salatzen du ekofeminismoak, ez baitu lortzen bizitzea merezi duten bizitzak izateko baldintzak ezartzea gehiengo globalentzat; interdependentzia desparekotasunean eta metatzeko eta desjabetzeko prozesuetan oinarrituta antolatzen duelako; eta, gure ekodependentzia ukatzen duenez, planetaren mugak gainditu dituelako dagoeneko. Krisi sozioekonomikoak bizitzan prekaritatea ezartzen du bizitzeko araubide orokor gisa. Prekaritatea oso modu desorekatuan dago banatuta, eta munduko biztanleriaren zati handi batentzat bazterkeria edo heriotza dakartza zuzenean. Krisi ekologikoak gelditu ezinako hiru prozesu biltzen ditu: klima-aldaketa; biodibertsitatearen galera; eta materialak, energia-iturriak eta hondakinak xurgatzen dituzten hustubideak agortzea planetan. Krisi ekonomiko eta sozial hau hain da handia, ezen planetako gaur egungo bizidunen kolapsoa dagoela esan beharra baitago.

Kolapsoaz ari garenean, ez gara etorkizuneko mehatxu batez ari, ez eta mundu osoa suntsituko duen bat-bateko hondamendi natural baten arriskuaz ere. Kolapsoa dagoeneko martxan dago. Ekosistemen orekaren hausketa gero eta azkarragoa da, eta, askotariko intentsitate eta maila geografikotan, planeta osoa hartzen ari da. Kolapso ekologiko horien aurrean, sistemak ezin du erreakzionatu, eta, hala, kolapso sozioekonomikoak sortzen dira. Koronabirusaren pandemia *kolapso ekosozialaren* mundu mailako adibiderik argiena izan zen, ekosistemaren eta giza bizitzaren erreproduktzio-zikloen haustura kateatutzat hartuta.

Egoera horretan, gure eraldatze-asmoek merkatuetara mugatuta jarraitzen dutenez, eta gero eta *hazkunde handiagoa* edo *hazkunde hobea* (*berdeagoa*, *humanoagoa* edo *berdinzaleagoa*) bilatzen dugunez, sistema biozida hori elikatzen jarraitzen dugu, eta gero eta gehiago hurbiltzen gara amildegira eta lurreko gaur egungo bizidunak galtzera (planetak bizirik jarraituko du, baina beste bizidun batzuk egongo dira, eta nekez biziraungo du gizakiak). Hain zuzen, horixe gertatzen ari da, gaur egun, *giza garapen jasangarriko* planteamenduekin, zeina gobernu aurrerakoien eta nazioarteko erakundeen zeregina markatzen duen helburu ofizialtzat hartu baita. Planteamenduok kritikoak ziren hasieran³, baina kapitalismo berde digitalak bereganatu ditu gaur egun; hala, gaur egungo larrialdiko egoeraren aurrean, *hazkunde ekonomikoaren* (garapena) alde egiten du, desparekotasuneko, pobrezia eta abarreko gizarte-arazoak (humanoa) eta ingurumenekoak, nagusiki, klima-aldaketa (jasangarria), aldi berean konpontzeko bide gisa.

Horregatik, ekofeminismoak dio merkatuak gure apustu politikoaren erdigunetik kendu behar ditugula: kontua ez da merkatuetan hobeto bizitzea, ez eta planeta zainduko duten merkatuak izatea ere. *Ondo bizitzeko*, sistema eraldatu behar dugu, merkatuak eta haien *hazkundearen* logika erdigunetik kendu. Kontua *ondo* bizitzea da, ez *hobeto* bizitzea: ez lehen baino hobeto, ezta gainerakoak baino hobeto ere, ondo baizik, planeta bizi batean bizitzea merezi duen bizitza gisa denon artean definitzen dugun horretan (*bizikidetza ona*). Hona hemen ekofeminismoaren galdera politikoa: nola igaro gaitzake gaurko sistema biozidatik giza espezieak biziraungo duen beste mundu batera, gaur egun saihetsezina den oreka ekosistemiko berri baten esparruan, gure sistema sozioekonomikoen ardatza bizikidetza onari eustea izanik?

3 Planteamenduon jatorria Brundtland Txostenean (1987) eta Giza Garapenaren Txostenean (1990) aurki dezakegu; hain zuzen ere, lehenengo hartan aipatu zen lehen aldiz garapen jasangarriaren ideia.

4. Gorputza-lurra lurraldea

Iparralde globaleko ekofeminismo hiritar eta zuriak, bizitzaren iraunkortasunaz aritzean, interdependentzia eta ekodependentzia mahaigaineratzeko ahalegina egiten du. Hegoalde globalean eraikitzen den ekofeminismoak (batez ere nekazarien, indigenen eta komunitateen feminismoekin lotua) ez du *ahalegindu* beharrik, izaki bizidunak elkarren artean eta lurraekin lotzen dituzten loturak barne-barnean sentitzen baitira. Gorputza-lurra lurraldean errotutako esperientzia gisa sentitzen da bizitza. Hortik abiatuta, salatzen da (neo)kolonialismoak apurtzen dituela loturak, eta *Gauza eskandalagarri hori* globalki inposatzea ahalbidetzen duela, lotura horiek hautsiz eta gorputza-lurra lurraldeaz gabetuz.

4.1. Bizitzaren oinarri materialak

Lur-lurraldeaz aritzean, gauza guztiak bizitzeko aukera ematen digun lur bizi batean gertatzen direla esan nahi da. Lurra hitza erabiltzen da, zentzu zabalean, mendiei, basoei, urei, soroei eta abarri buruz hitz egiteko. Pachamama, Ama Lurra, Gaia... edonola deituta ere, bizitza propioa du, eta hartan sortzen da landareen eta animalien (gizakien eta gizaki ez direnen) bizitza.

Gorputz-lurraldeaz aritzean, pertsonen bizitza haragitutako esperientzia gisa aipatzen da: zaindu eta babestu behar den gorputza gara. Ez gara elkarrengandik bereizitako gorputz indibidualak, gorputz kolektiboa baizik. Pertsonok elkarlotzen gaituzten harremanak azpimarratzen dira. Ekofeminismoak arreta berezia jartzen du emakumeen gorputzetan eta, hortik abiatuta, beste bi gauzatan: itzalpeko lanetan eta indarkerian. Emakumeen gorputzek bizia ematen dute, egunero birsortzen dute eta haiek elikatzen dute mundua, nagusiki. Aldi berean, indarkeria heteropatriarkal, klasista eta arrazista handia bizitzen dute. Gorputz-lurraldea agerian jartzean, zera galdetzen diogu geure buruari: nola zaintzen edo ustiatzen dira gorputzak? Ba al dago sexu- eta ugalketa-askatasunik? Nola eusten diote gorputz batzuek beste batzuei?

Gauza eskandalagarri hori gorputza-lurra lurraldea ukatzeko etengabeko ilusioaren gainean eraikitzen da. Haren ustez, teknologiak guztia ordezkatu dezake: lur-lurraldea eta gorputz-lurraldea. Hori argi ikusten da nekazaritzan: 1970eko hamarkadako iraultza berdetik gaur egungo 4.0 nekazaritzara, nekazaririk gabeko nekazaritza lortzea da asmoa (teknifikatua, digitalizatua). XXI. mendeko teknooptimismoaren ustez, *ekonomia desmaterializa* daiteke: digitalizazioaren eta energia lortzeko modu *garbietarako* aurrerapenaren bidez, materialik kontsumitu gabe, gas kutsakorrik isuri gabe eta zaborrik sortu gabe *aberastasuna* sortuko duen ekonomia birtuala lortu nahi du.

Ekofeminismoak teknooptimismo horren faltsutasuna eta indarkeria azaleratzen ditu. Teknologia berde eta digital guztiek materia dute atzean. Ez dago lurrik eta nekazaririk gabeko nekazaritzarik. Ordenagailuek eta auto elektrikoek meatzaritza bortitz baten bidez erazitako material arraroak erabiltzen dituzte. Makroparke eolikoak instalatzen direnean, oreka ekologikoak suntsitu eta laborantza-lurrak desagerrarazten dira. Botere korporatiboak badaki lurraldea behar duela, eta horregatik ari da *baliabide* deritzen horiek lortzeko (lurra, ura, lur arraroak, energia-iturriak...) benetako mundu gerra bat egiten. Trantsizio berde eta digital bikoitzaren euskarria erauzketa-eraso bat eta zenbait megaproiektu suntsitzaile dira.

Estraktibismoak eta megaproiektuek itxura berria ematen diete dinamika kolonialistei: esklabosketako ibilbide zaharretan zehar doazen itsaspeko kableak, algoritmo digital arrazistak eta emisioak konpentsatzeko proiektuak, zeinak multinazionalentzat *zuriketa berdea* egiteko modu bat baitira.

Erauzketa-erasoaldiak, gainera, lurraldeen birpatriarkalizatze sakona dakar, lau alderditan: alderdi politikoa, megaproiektuak egiten diren lekuetan erabakiak hartzeko profila oso maskulinizatuta egon ohi delako. Enpresa handiek tokiko elite maskulinizatuarekin egiten dituzte aliantzak. Alderdi ekologikoa, estraktibismoaren ondorioz bizitzaren erreproduzio-zikloak (lurzoruak, ura, elikadura) apurtzen direlako. Alderdi ekonomikoa, lan-egitura patriarkalak ezartzen dituelako, enplegu maskulinizatua sortuz eta emakumeak etxeetara baztertuz, hiriko familia nuklear zuriaren eredia inposatuz, eta emakumeen mugikortasuna murriztuz (jadanik ez dago landatzeko moduko baratzerik, ezta ezer biltzeko basorik ere). Azkenik, gorputzaren alderdia, estraktibismoak indarkeria matxista handia baitakar berekin: megaproiektuak babesten dituzten segurtasun-indarrak, lantoki oso prekario eta maskulinizatueta berezkoak diren dinamika oldarkorrak, etab.

4.2. Gorputza-lurra lurraldearen babesa eta subiranotasuna

Ekofeminismo osoak ikuspegia eta ekintza lotzen ditu, baina lotura hori bereziki sendoa da gorputza-lurra lurraldea izendatzeko apustuan. Emakume nekazari eta indigenek beren lurraldeen alde eta estraktibismoaren eta megaproiektuen aurrerapenaren aurka egindako borroketatik sortu zen; hala, meatzaritzaren, uharka handien, nekazaritzako negozioen eta abarren aurka borrokatu ziren. Errebeldia horretan, barne hartzen dute indarkeriaren aurkako eta sexu- eta ugalketa-eskubideen aldeko borroka. Bizitza beti da gorputz eta lur batean errotutako esperientzia bat, baina aipatzea ez da nahikoa, bizitza gertatzen den lurralde zabal eta konplexu hau defendatzeko premia dago.

Gorputza-lurra lurraldearen subiranotasuna defendatzen da, lurraldea osotasun biziduntzat hartuz, lur edo gorputz bakartuen baturatzat hartu beharrean. Bizitza konexioan gertatzen da. Oinazeak ere lotuta daude: basoarekin eta ibaiarekin harmonian bizi den komunitate batentzat, haien suntsipena ez da janaria ematen dion baliabidearen kaltetze hutsa; aitzitik, beren parte den zerbaiten kaltetzat sentitzen dute. Lehen pertsonan bizitzen dute oinazea. Poza ere lehen pertsonan bizitzen dute: *ongi bizitza* bizirik dagoen egitura horren parte sentitzea da. Horregatik hitz egiten da bizitzaren ehunaz, bilbeaz edo sareaz.

Garapentxarraren eredia erabat kolonialista da, eta sare hori ukatu eta haustearen gainean eraikitako kosmogonia eurozentrikoa inposatu du mundu osoan. Animalia humanok gainerako bizidunekin ditugun loturak hausten ditugu, eta ingurumen-baliabidetzat hartzen ditugu (ingurumena: inguratzen gaituena da, baina ez da gure parte). Gero, gure arteko loturak hausten ditugu: komunitatea banandu egiten da eta elkarrengandik bereizita gaudela ulertzen dugu. Sistemaren jarraibideak betez, benetako bakardadean geratzen gara.

Horren aurrean, geure buruari buruz gorputza-lurra lurraldean oinarrituta pentsatzen badugu, bestelako kosmogonia batetik abiatzen gara, gaur egun bizirik dagoen guztiarekin eta denboran zehar bizi eta hiltzen den guztiarekin bat. Komunitatearen defentsak erro sakonak ditu ekofeminismoan. Ez da edozein komunitate; izan ere, sarritan indarkeriako eta desparekotasuneko harremanek zeharkatzen dute. Aldiz, dauden elkarrekotasun-loturetatik abiatuta, gorputz-lurraldearen defendatuz eraiki nahi dena da.

Bestelako kosmogonia batetik abiatzeak, halaber, denbora beste modu batean bizitza dakar. *Garapentxarraren* eredia orainean oinarrituta dago erabat: aurrerabidearen ikuspegi linealaren arabera, iragana gaindituta dago eta etorkizunean etengabeko hobekuntzak egongo dira, amaierarik gabeko hazkundera, eta,aldi berean, ez du horren gaineko erantzukizunik hartzen. Begirada progresibo eta lineal horretan ez bezala, denbora modu zirkular batean bizitzen da, *iragana etorkizun gisa* planteatzen da, eta *memoria luzea* esamoldea erabiltzen da orainean soilik bizi ez den gorputz kolektibo baten zati garelako ulertzeko moduari buruz aritzean.

Gorputza-lurra lurraldea aipatzean, batetik, *Gauza eskandalagarri horren* alderdi (neo)koloniala nabarmentzen da, eta, bestetik, bizitzaren oinarriko materialak (lurra, gorputzak) agerian jartzetik harago joaten gara, batez ere azpimarratzeko egitura bat dela, pieza solteen baturatzat hartu ezin den ehun bat. Iparralde global hiritar eta zurian bizi garenoi, funtsezko galdera bat sortzen zaigu: gai al gara geure burua ehun bizidun horren partetzat hartzeak mundua ulertu eta bizitzeko moduetan eragiten dituen hausturak imajinatzeko? Lur bizidunaren parte senti gaitzke, ia asfaltoa besterik zapaltzen ez badugu?

5. Kapitala-bizitza gatazka

Ekofeminismoa egituratzen duen hirugarren ardatz bat dago: *Gauza eskandalagarri hori* kapitalaren metaketaren eta bizitzaren iraunkortasunaren arteko gatazka sistemiko eta konponezin batean oinarritzen dela salatzea. Ekofeminismoak, marxismoak bezala, uste du mozkinaren eta *hazkundearen* logika dela kapitalismoaren ardatz egituratzailea. Baina marxismoak ez bezala, ez du kapitala-lana gatazka soilik salatzen. Ekofeminismoaren ustez, eztabaida ez da ordaindutako lanaren ingurukoa soilik, lan guztiei buruzkoa baizik, ordaindu gabeak barne; eta, areago, bizitzaren beraren ingurukoa, bizitza ezin baita eskulanaren alderdira mugatu.

Kapitalismoan, bizitzaren erreprodukzioarako bideak norbanakoen esku daude, eta metatzeko bide pribatu bihurtzen dira. Hala, izaera kolektiboa galtzen dute. Lurra ez da jada gainerako ekosistemarekin harmonian dagoen giza komunitatea elikatzen duen lurraldea; aldiz, norbanakoen onura lortzeko funtzionamenduan jartzen den kapital bat da. Nekazaritzako toxikoekin lantzea errentagarriagoa bada, lurra pozoitu arren, horixe egiten da. Elikagaiak esportatzeak mozkin handiagoa sortzen badu, bertako biztanleak gosez egon arren, janari hori kanpoan salduko da. Egoera horiek erabat ulertezinak dira bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, baina guztiz arrazoizkoak dirudite kapital-pilaketaren logikatik begiratzen badiegu. Logika horren arabera, gizakien eta gizaki ez direnen bizitzak ez dira zaindu eta babestu beharreko zerbait, etekina sortzeko ustiatu beharreko baliabideak baizik. Bizitza bera ez denean helburua, kaltetu daitekeen bitarteko bat baizik, bizitza mehatxupean dago beti.

Ekofeminismoaren arabera, azken batean, merkatu kapitalistak daude erdigunean, hiru mailatan: materiala, sinbolikoa eta politikoa. Materiala, zer ekoitzi, nola eta zenbat eta nola banatu erabakitzen dutelako. Sinbolikoa, ongizatearen, hazkundearen, aberastasunaren, lanaren, garapenaren eta abarren ideiak berak eraikitzen dituztelako. Eta politikoa, beren zerbitzura jartzen dituztelako erakunde politikoak eta, zentzu sakonago batean, eraldaketa baten alde egiten ditugun eskaerak sistemaren beraren marjina estuen barruko hobekuntza bihurtzen dituztelako. Azkenean, esan ohi den moduan, *errazagoa da munduaren amaiera irudikatzea, kapitalismoaren amaiera irudikatzea baino*.

Agian merkatuaren zentraltasun horren adierazlerik handiena Antropozenoa da. Izen hori erabiltzen da aro geologiko berri bat izendatzeko, zeinetan planeta osoaren funtzionamenduaren eragile nagusia giza jarduera bera baita. Lurraren historiak (lur biziduna, gogora dezagun) askotariko aroak izan ditu, eta batetik besterako igarobidea planetako bizitzaren osaera aldatu duten suntsipen masiboek markatu dute. Gaur egun, seigarren suntsipen masibo baten atarian gaude. Eta *Gauza eskandalagarri horrek* azken mendeetan abian jarritako *garapentxarraren* ereduak eragin du aldaketa hori. Metaketaren logikaren zentraltasuna ez da asfaltodun paisaietan soilik ikusten; haizearen eta uren erregimen-aldaketan ikusten da, planetaren kolapsoan, zeina klima-aldaketa barne hartzen baitu, baina harago baitoa.

Gatazka hori identifikatzea funtsezko abiapuntua da ekofeminismoarentzat. Hortik aurrera, sakontzeko funtsezko bi bide daude gutxienez: gatazkaren begirada sinpleegia saihestea, eta estatuak zer eginkizun duen galdetzea.

5.1. BBVAh eta bizitzen balioa

Kapitala-bizitza gatazkaz hitz egiteak kapitala nagusi den mundu honetan bizitzak ez *duela ezer balio* esan nahi du? Ez. *Garapentxarraren* eredu honetan bizitza guztiei kalte bera egiten zaiela esan nahi du? Ezta ere. Bizitza ez da hutsean flotatzen ari den izaki puru eta garbi bat, eta kapitala ez da izate abstraktu bat.

Kapitalak *aurpegia du*: munduko botere korporatiboa beren eskuetan dutenena. Ekofeminismoak salatzen duenez, botere hori desparekotasun-ardatz guztiak pribilegio gisa biltzen dituen subjektuaren inguruan kontzentratuta dago (gero eta kontzentratuago). Banketxe boteretsu baten izenarekin ironikoki jolastuz, gaztelaniazko siglak erabiliz, *BBVAh* izenez ezagutzen dena da: zuria, burgesa, gizonezkoa, asfaltokoa/heldua eta heterosexuala, funtzionaltasun normatiboa duena, etab. Gutxiengo horren bizimoduak metaketan oinarritzen dira (gorputzak, denborak eta lurraldeak espoliatzea behar dute sistematikoki) eta inposatu egin ditzakete, kapitalaren zirkuituak menderatzen dituzte eta.

BBVAh delakoa munduan egoteko duten modua da, ez soilik diruzko irabaziak maximizatzeari dagokionez. Hori funtsezko elementua den arren, maskulinitasun zuri hegemonikoaren eraikuntzarekin lotutako beste alderdi batzuk ere tartean daude. Maskulinitate hori gainerakoak baztertuz okupatzen den toki bat da, eta hierarkikoa eta bortitza da berez. Ez du dirua metatzeko xede hutsa; aldiz, gorputz sexuatu eta arrazializatuak menderatzeko asmoa ere badu. Metaketaren logika ez da kapitalista soilik, heteropatriarkala eta arrazista da berez, arriskutsua eta bortitza.


Kapitala-bizitza gatazka kapitala menderatzen dutenen bizitzen eta... beste noren artekoa da? Ezin dugu pentsatu *bizitza* horrek modu berdinean barne hartzen dituenik bizitza guztiak. *Gauza eskandalagarri hori* ezin da argi eta garbi bereizitako bi zati dituen (kapitala eta bizitza) iceberg baten moduan ulertu; oster, egitura konplexua da eta, horretan, bizitza gutxi batzuek *balio* handia (izugarria!) dute eta erabat pribilegiatuak dira, guztia beren zerbitzura jartzen dutelako.

Bizitzaren aurkako erasoaz hitz egitean, batetik, planetaren bizitzaz ari gara. Kapitalismoa bere oinarriko estraktibismo oldarkorra ukatzea ahalbidetzen dion produkzio-fantasia horren gainean eraikita dago, eta sistematikoki degradatzen ditu ekosistemak. Bestalde, pertsonen bizitza zehatzek larritasun erabat desberdineko erasoak jasotzen dituzte, BBVAh delakoaren botere-ardatz horretatik aldentzen diren heinean.

BBVAh ez den gehiengo global eskergaren barruan, bizitza zehatzek metaketa-prozesuaren *zerbitzura* daudelako (langile, kontsumitzaile, zerbitzari, gorputz desiragarri eta abar) lortzen dute balioa, eta, aldi berean, nolabaiteko tartean gozatzen dute pribilegioa hein batean bizitzeko. Gutxiengo global horretatik zenbat eta gehiago aldentu, orduan eta handiagoa da bizitzari eragiten zaion indarkeriaren neurria, desjabetze-mailak areagotzen dira, lan ikusezinen kopurua handitzen da (hurrengo atalean ikusiko dugun moduan) eta txikiagoa da pribilegio erlatiboak erabiltzeko tartea. Esan dezakegu hemen biopolitika dagoela jokoan; kapitalismoa, bizirik dagoena kontrolatzeko araubide gisa.

Horren azpian, hilda egonik soilik *balio* duten bizitzak daude: bortxatutako edo eraildako emakumeen gorputzak, zeinak bizitzaren (eta heriotzaren) jabe denari nolabaiteko mezu bat bidaltzeko balio baitute, eta lan esklaboen ondorioz akitutako gorputzak. Hori da nekropolitikaren eremua: *kapitalismo gore*a, heriotza kontrolatzeko araubide gisa. Eta, areago, gorputz batzuek ez dute ezer *balio* hilda egonik ere, *giza hondakinak* dira, goseteetan, ahaztutako gerretan, basamortu edo itsaso bidezko migratze-ibilaldi ikaragarrietan galdutako bizitzak. *Gauza eskandalagarri horrek* eragindako heriotzak dira, eta sistemarentzat ez dira etekintsuak ere.

Bizitza hierarkizazioa *Gauza eskandalagarri horretan*



Iturria: egileak egina.

Kapitalismoak egitura materiala ematen dio bizitza batzuek eta besteek menderakuntza-sistema anizkoitz horren esparruan (heteropatriarkala, arrazista, kolonialista, kapazitista) duten balio sinboliko erabat desberdinari. Kapitala-bizitza gatazka hitz egitea bizitzen arteko muturreko hierarkizazioaz hitz egitea da. Gainera, *Gauza eskandalagarri horretan* eraikitzen den bizitza ulertzeko modu toxikoaz hitz egitea da. Batetik, BBVAh-aren bizimoduak, metaketan oinarrituak, itxaropen orokor gisa funtzionatzen dute, bizitza merezi duen bizitzaren inguruan dugun ideia sistemak harrapa dezala uzten baitugu. Nagusitu den ongizate nozioa ez da unibertsalizatzeko modukoa eta ez du dibertsitatea errespetatzen. Bestetik, arrakasta lortzeko, ezinbestekoa da autosufizientzia ideal bat betetzea. Ezeren ez inoren beharrik ez edukitzea da asmoa. Robinson Crusoe da zibilizazio-eredu horren paradigma: subjektu bat (funtzionaltasun normatiboa duen gizon zuri heldu bat) uharte *mortu* batera iritsi da (uhartea ez da lurralde biziduntzat hartzen), eta baliabide gisa erabili du. Erabat bakarrik, pixkanaka zibilizazioa eraiki, eta, geroago, bere esklabo arrazializatua, Ostiral, basakeriatik ateratzen duen heroia da.

Ekofeminismoaren arabera, autosufizientzia ameskeria kaltegarri hutsa da, maskulinitasun hegemoniko zuriaren erdigunean dagoen burugabekeria: Robinson Crusoe ez da ezerezetik agertu mundura, eta ezingo luke bizirik iraun gaixotuz gero edo uharteak elikatuko ez balu. Baina inoren mende ez balego bezala jokatzeko ezinbestekoa da sisteman arrakasta izateko, aukera ematen baitio bere burua ez den ezeren edo inoren gaineko erantzukizunik ez hartzeko. Oso argi dago eredu horrek nola funtzionatzen duen lan-merkatuan: inoiz nekatuko ez bagina bezala eta enpresatik kanpoko ezerk edo inork gure arreta beharko ez balu bezala sartu behar dugu hartan. Zainketetatik aske dagoen langilea izatera jolastu behar gara (edo, ironikoagoak izanik, *langile txanpiñoia* izatera), zeina egunero enpresarentzat erabat eskuragarri baitago, premia guztiak aseta eta *familia-kargarik* gabe. Alabaina, ez legoke langile txanpiñoirik, *merkatuaz honantzago* dauden hamaika kontu konpontzen dituzten esku ikusezinik egon ezean. Menderatu beharreko aurkako natura baten aurrean bakarkako arrakasta izateko amets amerikarra horixe bera da: amets bat, amesgaizto bat.

Kapitalaren logikaren arabera, bizitzari buruz eraikitzen den ideiak existentziaren alderdirik oinarritzkoena ukatzen du: zaugarritasuna. Bizitza ulertzeko modu horrek elkarren artean ditugun loturak hausten ditu. Bizirik dagoen guztiak egitura edo sare bat osatzen duela ukatzen du. Eta sare hori apurtzean kolapsatu egiten dugula ukatzen du.

5.2. (Ongizate) estatuak ez du gatazka konpontzen

Estatuen eginkizuna horien atzeko indar politikoen arabera da. Ageriki kapitalaren zerbitzura jar daitezke, Hego Konoko diktadorekin gertatu zen moduan, zeinak eskualdea esperimendu neoliberal bihurtu baitzuten. Edo, bestela, sistemaren mekanismoak herritarrei laguntzeko erabiltzen saia daitezke, Abya Yalako gobernu aurrerakoi batzuek egin duten moduan, neoestraktibismoa erabiliz pobrezia aurkako borroka finantzatzeko. Baina, estatuak liskar hori arintzeko bere tresnak erabili dituen munduko leku, garai eta egoera horietan ere, ongizatearen eta merkatuen arteko itxurazko idilioaren ondoren, beti pizten da kontraesana. Hori gertatzen denean, estatuak metaketa bermatzearen alde egiten dute, azkenean.

Bereziki garrantzitsua da ulertzea horixe bera gertatzen dela beren burua eskubide zibil, politiko eta ekonomikoaren aitzindaritzat eta munduan jarraitu beharreko adibidetzat jotzen zuten lurralde kolonialistetako ongizate-estatuetan ere. Ongizate-estatuak kapitalismoaren barruan gizarte osoarentzat bizi-baldintza duinak lortzeko modu gisa iragartzen du bere burua; hau da, kapitala-bizitza gatazka gainditzeko modu gisa. Bai eta unibertsalizatzeko moduko aukera gisa ere. Ekofeminismoaren ustez, ongizate-estatuak gatazkaren intentsitatea erregula dezake, baina ezin izango du inoiz desagerrarazi, eta ezingo da unibertsala izan.

Hori lehenago onartu nahi ez bazen ere, agerian geratu zen 2008ko finantza-errotarekin, bizibaldintzen aurka egitearen kontura enpresa-arriskuak sozializatzeko politikak abiarazi zirenean. Hain zuzen, hegoalde globalean, halako austeritate-politika biozida gogorak ezarri ziren zenbait hamarkadaz, egiturazko doikuntza-planen bidez. Horrek bi gauza jarri zituen agerian. Batetik, ongizate-estatua ipar globalaren salbuespen historiko bat dela, eta langile-klaseen borrokaren bidez lortu zela. Klase horientzat, aldi berean da lorpena (kapitalak eskubide batzuk onartzea lortzen da) eta ukapena (kapitalismoan bizitzea onartzen da). Eta, bestetik, bertsiorik onenetan ere, oinarrian izan dituela beti munduko desparekotasuna (planetaren metatze-eremuetan egin daiteke, baina ezin da unibertsalizatu), lanaren banaketa sexuala (emakumeek bigarren mailako herritartasuna dute, lan ikusezinak beharrezkoak direlako kapitalismoa mantentzeko) eta espoliazio ekosistemikoa (ongizate-estatua estrategia desarrollisten bidez finantzatzen da).

Hainbat hamarkadaz estatuaren aurkako diskurtso neoliberal oso beligerantea nagusitu ondoren, kapitalismo berde eta digitalak berriz ere iragartzen du ongizate-estatuaren aurrerapen unibertsala lortuko dela, bai eta gaur egun artatzen ez diren alderdiak estaltzeko (adibidez, zainketak) perfektionatuko dela eta dibertsitatearen inguruko eskubideak aitortuko direla ere (sexualak, generoarekin lotuak, kulturalak, etab.). Eredu horren zutabea lankidetzak publiko-pribatuak dira, zeinetan erakunde publikoek eta enpresek bat egiten baitute trantsizio berde eta digitalak behar dituen megaproiektu berritzaileak abian jartzeko.

XXI. mendeko mundua merkatuaren zentraltasunetik ikusita



Iturria: egileak egina.

Proposamen horixe dago, nagusiki, iparralde globalean proposatu diren Itun Berde Berrien proiektu itxuraz atseginen atzean. Ekofeminismoak salatzen duenez, betikoaz konbentzitzeko erretorika berri bat besterik ez da: kapitala-bizitza gatazkarik ez dagoela, alegia. Nolanahi ere, estatuen atzemate korporatiboko modu berritu bat besterik ez da, eta haren lehentasun eta azken helburua botere korporatiboa une agoniko honetatik salbatzea da: ez du negozioa berreskuratzea lortzen eta, gainera, inoiz egin ez duen moduan egin behar du, oinarri material nahikorik gabe (energia oparoa eta merkea izan gabe, modu bakanean esanda).

Planetako metaketa-eremuetako estatuek garapenaren aitzindaritzat agertzen dituzte beren buruak berriz ere. Giza garapenarena eta garapen jasangarriarena, oraingoan. Baina ezkutuan gordetzen dute, ostera, iparralde globalean *erdigunea periferia bihurtzeko* prozesu bat gertatzen ari dela. Gainbeheran dagoen erdigune horrek gero eta gehiago bizitzen ditu bere larrutan *azpigarapenaren* berezko gaitzak, *garapenaren* arloko etxeko lanak ondo egiteagatik gairiditutzat jotzen zituen arazoak: bizitzan prekaritatea eta alderdi anitzeko pobrezia (elikagaiena, energiarena, bizitegiarena...) areagotzea, erauzketa-proiektuak ugaritzea, etab. *Garapentxarraren* ametsa puskatzen ari da. *Gauza eskandalagarri hori* metaketak mugitzen duen sistema dela ulertzeak esan nahi du metaketa- eta gabetze-prozesu bikoitzak ez duela amaierarik: gero eta lurralde edo gizarte-segmentu gutxiagok metatzen dute; gero eta gehiago dira gabetuak (intentsitate desberdinaz izan arren). Ez dago leku segururik planetan. Sistema suizida bat da.

6. Zainketa

Zainketa terminoa oso inspiratzailea eta erakargarria da, baina baita nahasia ere. Hitza nork eta zer ikuspegitik erabili, esanahiak oso desberdinak dira. Ekofeminismoaren barruan ere ez dago erabilera argirik, hitz bera erabiliz bi gai oso desberdinez aritzen baita: lortu nahi dugun mundu desberdin baten erdigunean jarri nahiko genukeena; eta desagerrarazi nahi duguna, irauli nahi dugun munduari eusten diolako. Zainketek etorkizun bat izendatzen dute, baina baita arazoaren erroa ere. Pentsa dezagun bi angelu horietatik.

Etorkizun bat izendatzen dute, bizitzaren sareaz jabetu eta arduratzen den kokatzeko modu batez ari direnean. Erantzukizun partekatuko logika bat izendatzen dute: zaurgarritasunari heltzeko eta interdependentziari eta ekodependentziari erantzuteko ahalegina, elkarrekikotasunean eta harmonian oinarrituta. Komunitate baten zati bat sentitzen garenean eta gorputza-lurra lurraldea babesten dugunean zaintzen dugu. Ikuspegi horretatik, zainketak lotuta daude megaproiektuen eta estraktibismoaren aurkako borrokarekin; ondasun erkideak privatizatzeari aurka egitearekin; ondasun erkide eta kolektiboa sortu eta babestearekin; ordaindu gabeko lanak banatzearekin; elikadura-subiranotasunaren eta agroekofeminismoaren aldeko apustuarekin; *bestelako ekonomia* batzuk babestearekin (gero aipatuko ditugu)... Munduan autosufizientziaren eta metaketaren logikekin hautsiz egoteko modu batetik sortzen dira zainketak. *Zainketa menderakaitzak* direla esan genezake. Borroka da zainketa menderakaitzak erdigunean jartzea.

Baina zainketez hitz egiten da, halaber, bizitza eraso-testuinguru batean (nekez) aurrera ateratzea eragiten duen ezkutuko beste horretaz aritzeko. Zainketak ulertzeko modu horrek *Gauza eskandalagarri horretan* duten egiturazko eginkizuna nabarmentzen du. Merkatuak erdigunean daudela esateak egitura kolektiboak haien zerbitzura jartzen direla esan nahi du. Metaketa nagusitzen den sistema batean, ez dago eta ezin da egon erantzukizun kolektiborik bizitzari eusteko. Alabaina, bizitzarik gabe ez dago kapitalik, ez merkaturik, ez ezer. Nola jarrai dezake sistemak funtzionatzen, orduan?


Sistemaren *B aldean* hartzen da erantzukizun hori. Hor daude bizitzaz arduratzen diren lanak eta denborak. Merkatuek eragindako kalteak konpontzen dituzte, eta bizitzeko behar den gainerako guztia, haiek ematen ez digutena, bermatzen dute. Horretarako, merkatuan ez dagoen pertsonarteko harreman afektibo bat (ez beti ona, afektu negatiboak ere badaude, esaterako, errua eta xantaia) hartzen dute oinarri; izan ere, merkatuan ekoizle eta kontsumitzaile ezezagunek elkarreragiten dute. Lanok, gainera, *langile txanpiñoiak* egotea bermatzen dute. Merkatuaren koltxoi gisa jarduten dute. Hori argi geratzen da austeritate-politiken aurrean merkataritza-kontsumoaren ordezkoko biziraupen-estrategiak abian jartzen direnean. Bestela esanda: erosi ezin bada edo estatuak ematen ez badu, etxean egiten da, doan.

Zainketak guztiaz arduratzen dira, hiru baldintzaren pean. Lehenik eta behin, privatizatuta daude: ez dira erantzukizun erkidea, etxeko arlo pribatuarena baizik, modu pribatuan eskuragarri dauden bitartekoak (denbora, dirua, sareak...) erabiltzen dituzten familiena. Familiak ez dira unitate harmoniatsuak, instituzio heteropatriarkalak baizik (ahaidetasunari, loturei eta sexualitateari buruzko genero-irizpideek markatuak). *Garapentxarraren* ereduak bizitzari eusteko modu kolektiboenak higatzen ditu, eta hiriko etxe heteropatriarkal zuri bat inposatzen du bortxaz.

Bigarrenik, feminizatuta daude: gehienak emakumeek egiten dituzte, baina haien artean ere banaketa guztiz desorekatua dute, arrazializazioaren eta gizarte-klasearen arabera. Mundu-mailako zainketa-kateak toki estrategikoa dira hori ikusteko: emakume migratu eta arrazializatuek egiten dituzte beste emakume batzuek egin ezin dituzten edo egin nahi ez dituzten zainketak, eta migratzean zainketen ardura beste emakume batzuen esku uzten dituzte. Gizonak, estatuak eta enpresak kate horietatik kanpo daude (baina horien onurak jasotzen dituzte). Gaur egun globalak dira, baina beti egon izan dira gizarte-klaseen artean. Botere-harremanen gainean antolatzen diren eta merkatuak ardatz dituen mundu bati eusten dioten sareez hitz egiten digute.

Zainketak zentzu sinboliko batean ere feminizatuta eta arrazializatuta daude: nork nahi du bizitza zaindu, bizitza gutxien duen sistema batean? Beren betebeharra dela ulertzen dutenek. Identitate femenino hegemonikoa zainketaren etika atzerakoi baten inguruan dago eraikita: zainketaren logika bat da, ugaltzeko beharrari erantzuten diolako. Baina atzerakoa da, immolatu eta sakrifikatzeko agindu baten pean zaintzen delako; familia heteropatriarkala soilik zaintzen delako; eta ustezko betebeharrori onartuta, gatazkak eztanda egitea saihesten delako. Zainketak morrontzaren logika batekin ere lotuta daude: zaintzen duenak bereak baino *gehiago balio* duten beste bizitza batzuen zerbitzura jarri behar du bere bizitza. Herri-klaseak jauntxo eta damen zerbitzura; pertsona arrazializatuak jauntxo eta dama zurien zerbitzura.

Azkenik, zainketak ikusezin bihurtu dira. Askotariko gabezien uztarketaz ari gara ikusezintasuna aipatzean. Ez dago tresna kontzeptual eta metodologikorik horiek ulertzeko; ez dira arautzen; ez dute ordainik, ez dirutan ez eskubidetan; ez dago horiek aldatzeko aldarrikapen eta egitura politikorik... Eta, horrelako zerbait badago, bigarren edo hirugarren mailakoa da beti. Gabezia multzo horren ondorioz, lan horiek ez dute bide ematen herritartasun ekonomiko eta soziala lortzeko, ez eta nork bere eskubideen subjektu dela aitortzeko ere. Esparru horretatik ezin gara bihurtu gizarte osoa zalantzan jartzeko gaitasuna duen subjektu politiko. Ikusezintasunak *politikotasunik* eza dakar. Ikusezintasunaren nozio konplexu hori lotuta dago bizitzaren balio desorekatuaren inguruan aurrez aipatu dugun planteamenduarekin. Zure bizitzak zenbat eta gutxiago balio, orduan eta zainketa ikusezin gehiago egiten duzu.



Iturria: egileak egina.

Zergatik dira ikusezinak zainketak? Ikusezintasun horrek kapitala-bizitza gatazka ezkutatzeko aukera ematen duelako: tentsio horri aurre egiteaz arduratzen den tokia ikusten ez badugu, gatazka *desagertu* egiten da. Kapitalismoa sistema biozida bat da; heteropatriarkatu zuriak, berriz, bizitzari eusten dioten (edo, behintzat, horretan saiatzen diren) mendeko lanak eta subjektuak eskaintzen ditu, sistema zalantzan jarri gabe. Kolonialismo arrazistak hedadura globala ematen die zainketa-kate horiei. Zainketa horiek ez dira, inola ere, erdigunean jarri nahi ditugunak, salatu nahi ditugunak baizik.

Garapentxarraren eredia komunitatearen eta kapitalistaz bestelako ekonomia moten suntsipenaren gainean ezartzen da mundu osoan. Arrakasta ulertzeko modu homogeen bat finkatzen du: autosufizientziaren idealaren eta metaketan oinarritutako bizi-espektatiben ingurukoa. Bizitzaren sarea apurtzen duen eredu hori hedatzeak *B alde* bat du beti: gorputza-lurra lurraldeak espoliatzea, zainketak ikusezin bihurtzea. Horren aurrean, askotariko zainketa menderakaitzak sustatu eta babesteko saiakerak haize kontrako borroka dira beti, eta sistema halakoak ito edo erreprimitzen saiatzen da.

7. Trantsizio ekofeminista

Ekofeminismoak bere buruari galdetzen dio nola babestu daitekeen bizitza kolapso ekosozialetik, paradoxa batetik abiatuz: gure bizitzek merkatu kapitalisten mende jarraitzen badute, eta merkatuok behea jotzen badute, haiekin eroriko gara; aldiz, leheneratzen badira, gure bizitzen eta planetaren kontura egingo dute, eta behin betiko hondoratuko gaituzte. Nola balia daiteke haustura-une hori bizitza kolektiboaren subiranotasunak eraikitzeko?

Erantzun horrek guztiz errotuta egon behar du, ezin da unibertsalizatu. *Gauza eskandalagarri hori* iparralde global kolonialistako gizarteetatik desmuntatzen hasteko (testu hau idazten duena eremu horretan bizi da) mugimendu bikoitza egin behar da: sistemaren ageriko alderdien desazkundera lortzea, eta ikusezin bihurtutako alderdietan gertatzen den guztia kolektibizatzea.

Desazkundera termino polemikoa da; baina garrantzitsuena ez da hitza, edukia baizik. Ekofeminismoaren kasuan, desazkundera hiru kontu hartzen ditu barne. Lehenik eta behin, nahitaezko desazkundera metabolikoari aurre egitea (materiaren eta energiaren erabileran) modu planifikatuan, demokratikoan eta birbanaketa globaleko irizpideetatik abiatuta. Botere korporatiboak kontrolatzen jarraitzen badu, urritu behar dutenek jarraituko dute metatzen. Desazkundera oso lotuta dago estraktibismoaren eta megaproiektuen aurkako borrokarekin. Iparralde globalean, borroka horrek bi alderdi ditu: estraktibismoak bere lurraldeetan ere aurrera egiten duela onartzea eta geldiaraztea, eta, aldi berean, estraktibismoa kanpoan ez sustatzea. Horretarako, hegoalde globalean lurraldea defendatzen duten emakumeei laguntzeaz gain, aurre egin behar zaie beren mugetatik kanpo megaproiektuak ezartzen dituzten enpresei (sarritan diru publikoa erabiliz egiten dute, gainera); eta gehiegizko kontsumoa errotik murriztu behar da, ez soilik etxeetan, baita enpresa-sarean ere. Ez da nahikoa ekoizteko modua aldatzea, zertarako eta zenbat ekoizten den ere aldatu behar da.

Bigarrenik, desazkundera metaketa-logikaren ekintza-eremua murriztea dakar. Horretarako, bizitzaren merkantilizazio-prozesua geldiarazi behar da, lagundutako ugalketaren merkatuetan, zainketa digitalizatueta eta ondasun erkide naturaletan. Eta kapitalari boterea eta baliabideak kendu behar zaizkio. Metatu duen aberastasunaz gabetu behar da: dirua (bere *aberastasuna* delako, baina diru kapitalistari aberastasun deitzea zalantzan jartzen dugu, aldi berean), bizitzeko denbora (lanaldia nabarmen murriztea, ordutegiak berrantolatzea eta abar, alternatibak sortzeko denbora izate aldera), etxebizitza (hutsik dagoena edo espekulatzeko balio duena), azpiegiturak, metatutako lurra, ezagutza pribatizatua (jabetza intelektualaren legeak, *big data* direlako enpresa-monopolioa)... Kapitala metatzeko bitarteko pribatuak bizitzaren erreproduktzioarako bitarteko kolektibo bihurtu behar dira. Horretarako, ongizate-estatuaren mekanismorik onenak erabil ditzakegu (esaterako, erreforma fiskal progresibo eta sakon bat egitea), baina baita sistemaz haragokoak diren eta jabetza pribatua zalantzan jartzen duten mekanismoak ere, esaterako, okupazioa.

Hirugarrenik, metaketan oinarritutako bizimoduen desazkundera lortu behar da. Horretarako, zalantzan jarri behar da kontsumismoa eta autosufizientzia arrakastarako bide direlako ideia. Eta galdera hau egin behar diogu geure buruari: zeri deituko diogu *ondo bizitzea*, dagoeneko ez bada *zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto*? Ekofeminismoak sarritan erabiltzen du bizikidetzaren ona (edo bizimodu ona) terminoa, kolektiboki zehaztuko dugun eta bizitzea merezi duen bizitzaren etorkizuneko ideia bat aipatzeko, zeinak hiru irizpide errespetatzen baititu: unibertsaltasuna (guztiantzat posible izan behar du), berezitasuna (dibertsitatea onartu behar du) eta planetaren mugak.

Kapitalari kendutako baliabideekin, finantzaketa nahikoa izango dugu bigarren mugimendua egiten jarraitzeko: bizikidetzaren onaren iraunkortasunean erantzukizun partekatua hartzen duten eremu sozioekonomikoak eraikitzea. Gaur egun sistemaren *B aldean* ezkutatuta dagoen zeregin hori kolektibizatzea da helburua. Horretarako, hiru eragin-ardatz nagusi daude.

Lehenik eta behin, funtsezkoa da eguneroko bizitzako sare ekonomikoak eraldatzea. Gaur egun, sareok familia heteropatriarkalen ingurukoak dira, eta zainketaren etika erreakzionarioak eta morrontza arrazista eta klasistak bultzatzen dituzte. Nola lor dezakegu horietatik abiatu eta elkarren zainketako logika batek bultzatutako sare komunitarioak eraikitzea? Ezinbesteko urratsa da lanaren banaketa sexuala salatu eta desegitea. Horretarako, berdintasunaren erretorika desegin behar da, ez baitigu ikusten uzten nola osatzen den lanen banaketa bidegabea, eta nola etxeetatik beste eremu batzuetara hedatzen den, baita komunitatera ere. Komunitatea eraikitzeke, maskulinitate eta feminitate hegemonikoak ere zalantzan jarri behar dira: elkarren zainketa ezin da eraiki ez autosufizientziaren logikatik, ez eta zainketaren etika erreakzionariotik ere.

Bigarrenik, *bestelako ekonomiak* sustatu eta indartu behar ditugu, lanak antolatu eta baloratzeko eta premiak asetzeko orduan metaketan oinarritzen ez direnak, eta ekoizle eta kontsumitzaileen arteko hurbiltasuna eta ezagutza dutenak. Itxuraz enpresa kapitalistak soilik dituen iparralde global honetan, funtsezkoa da existitzen diren beste modu errebelde horiek ere ikusi eta bultzatzea: nekazarien ekonomia, elikadura-subiranotasunaren eta agroekologiaren aldeko apustuarekin lotua; ekonomia sozial eta solidario eraldatzailea, ordezeko merkatu mota gisa; merkatu formaletatik kanporatuek abian jarritako herri-ekonomiak; jabetza pribatuaren aurka eta elkarren babesean, trukean eta autokontsumoan oinarrituta eraikitako ekonomia subertsiboak. Hornikuntza antolatzeko ordezeko modu horiek guztiak ezinbestekoak dira, eta, aldi berean, nahitaezkoa da halakoak sarritan zeharkatzen dituzten dinamika klasista, arrazista eta heteropatriarkalak berrikustea. Hazi indartsua dira, perfektuak ez izan arren.

Hirugarren apustua arlo publiko-komunitarioa da. Ongizate-estatua helburua ez bada ere, privatizazio esplizituko testuinguru batean (lankidetzaren publiko-pribatuaren paradigmaren pean) funtsezkoa da dagoen arlo publikoa sutsuki defendatzea eta haren hedapenaren alde borrokatzea (adibidez, energiarako eta zainketarako eskubideen esparruan). Baina defentsa horrek ere kritikoa izan behar du, arlo publikoak sarritan oso modu bertikal eta burokratikoan funtzionatzen baitu, eta dibertsitatea kontrolatu eta zigortzeko tresna gisa erabiltzen baita. Kritika horiei jarraikiz, ekofeminismoak arlo publikoa eremu komunitarioa hurbilduko duen paradigma berri bat defendatzen du. Ez da apustu erraza, eta oraindik ez dago argiro zehaztuta, baina zainketa-sistema publiko eta komunitario bat eta erakunde publikoen partaidetza izango duten energia-komunitateak eskatzea dakar, besteak beste.

Bizikidetzaren on mantentzeko erantzukizun kolektibo horrek hiru funtsezko eremu bilduko ditu: komunitatearen inguruan egituratutako eguneroko bizitzako sare ekonomikoak, elkarrekotasuneko balioetan oinarrituta jarduten duten bestelako ekonomiak, eta arlo publiko komunitarioa. Kapitalari kentzen diogunarekin elikatzen baditugu, justizia globaleko desazkunde metabolikoko ariketa batetik abiatuta, orduan nabarmen doituko genuke matrize sozioekonomikoa. Aukera emango liguke gaur egungoen oso bestelako ezaugarriak dituzten sistema sozioekonomiko berrietara hurbiltzeko: lurraldean errotutako sistemak, zirkuitu ekonomiko labur eta sinplifikatukoak, gorputza-lurra lurraldean ukatzean oinarritutako mundu hiperkonektatu bat lortu nahi duen globalizazioaren burugabekeriaren aldean. Sistema sinplifikatu bat, zeinetan berriz ere lurra eta gorputzak izango baitira funtsezko faktoreak, eta haren zerbitzura jarritako teknologia hurbilagoa eta sinpleagoa eta demokratikoki kontrolatzeko modukoa izango baita. Nekazaritzara birbideratutako sistema bat, zeinak guztia asfaltoz betetzen duen joera urbanizatzaile hori geldiaraziko duen.

Halako mugimenduak bultzatzeko, indar kolektibo handia behar da. Nondik abia gaitzke hori lortzeko? Ekofeminismoaren ustez, *ezinegona politizatzeak* indar handia du. *Garapentxarraren* ametsaren amaierak berekin dakar porrot- edo iruzur-sentimendu sakon bat (arrakasta agindu zidaten eta gezurra da), bai eta bakardade-sentimendu handi bat ere (amets amerikarra hausten denean, apurtutako loturak soilik geratzen dira). Kapitalismo berde eta digitalak gezurrak agintzen jarraitzen du, eta, horren aurrean, neofaxismoek sentimendu hau jasotzen dute: ez garela kabitzen esaten digute, baina batzuk *soberan* daudelako da hori. Komunitate itxi eta hierarkiko baten apurtutako ametsak berreskuratuko direla agintzen da. Barneko ordena mantentzeko eta migratzaileak, emakume *desnaturalizatuak* eta gizon zurien eta haien familien aberriaren balioei erasotzen dieten gainerako gizatxarrak kanporatzeko proposamena da.

Beraz, lehenengo pausoa ezinegonari beste toki batetik heltzea da: izendatzea, partekatzea eta haren sustrai sistemikoak ulertzea. Baina hemen beste kezka bat agertzen da. Kolapso ekologikoak ukapena eta ihesa ekar ditzake: geure mikromunduaz soilik kezkatzea (modu osasungarrian jatea, *barneko bakea* lortzea), *carpe diem* iheslaria... Baina erabateko atsekabea eta etsipena ere sor ditzake.

Horren aurrean, iparralde globaleko ekofeminismoak *Gauza eskandalagarri horren* periferietako feminismoetatik ikasi behar du. Indarkeriarik larrienak galarazitako lurraldeetan bizi diren kideen bizitzeko gaitasun horrek ez etsitzeko deia egiten digu. Desagerpen, heriotza, bortxaketa, tortura, kanporatze eta lur-lapurreten aurrean, behin eta berriz erantzuten da galdutako bizitzek eragindako oinazeak ezin digula bizipoza kendu; aldiz, are indar handiagoz babestu eta gozatu behar dugu. Gai izango al gara gutako bakoitzaren etsipena itxaropen erradikal eta kolektibo bihurtzeko? Posible izango al da hori elkartasun feminista internazionalistatik egitea, eta iparralde globalak kolonialismoko historia guztiaren erantzukizunak bere gain hartzea? Galdera horiek guztiak bizirik daude ekofeminismoaren barruan, borrokan ari baita gorputza-lurra lurraldearen subiranotasunaren alde, bizikidetzaren onaren iraunkortasunaren alde eta, are zentzu zabalago batean, bizirik dagoen planeta baten alde, zeinetan giza espezieak bizirik iraungo baitu, baina jada ez baita erdigunean egongo.

8. Bibliografia

- BAYAS FERNÁNDEZ, Blanca, Mirene Begiristain Zubillaga, Irene González Pijuan, Mònica Guiteras Blaya, Ruth Pérez Lázaro eta Amaia Pérez Orozco (2022): *Inbertsio publikoak trantsizio ekofeminista ahultzeko bide berria*, Colectiva XXK, ODG, OMAL eta ESF, Bartzelona eta Bilbo (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [<https://colectivaxxk.net/wp-content/uploads/2022/12/Maquetacion-pertes-eu-web.pdf>].
- BEGIRISTAIN ZUBILLAGA, Mirene (2021): «Ekofeminismoen txirikordak», *Jakin.eus*, 245.-246. or.
- BOSCH, Anna, Cristina Carrasco eta Elena Grau (2005), «Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo», in: TELLO, Enric: *La historia cuenta*, El Viejo Topo, Barcelona (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Boletin_ECOS/10/verde_que_te_quiero_violeta.pdf].
- CARRASCO BENGEOA, Cristina eta Corina Rodríguez Enríquez (argit.) (2023): *Voces desde las economías feministas: resistencias, arraigos, cuidados*, Entrepobles eta Editorial madreSelva, Bartzelona eta Buenos Aires.
- CELIBERTI, Lilian (koord.) (2019): *Las bases materiales que sostienen la vida. Perspectivas ecofeministas*, Cotidiano Mujer - Colectivo Ecofeminista Dafnias, Montevideo, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [<https://www.cotidianomujer.org.uy/wp-content/uploads/2019/08/LasBasesMaterialesQueSostienenLaVida-Perspectivas-Ecofeministas.pdf>].
- COLECTIVA XXK eta SOF (2021): *Juntas y revueltas: explorando territorios de la economía feminista*, Colectiva XXK eta SOF, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [https://colectivaxxk.net/wp-content/uploads/2021/07/Juntas-y-revueltas_V10.pdf].
- COLECTIVO MIRADAS CRÍTICAS DEL TERRITORIO DESDE EL FEMINISMO (2014): *La vida en el centro y el crudo bajo la tierra. El Yasuní en clave feminista*, Colectivo Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo, Quito, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [<https://miradascriticadeltorriodesdeelfeminismo.files.wordpress.com/2014/05/yasunienclavefeminista.pdf>].
- CRUZ HERNÁNDEZ, Delmy Tania eta Manuel Bayón Jiménez (koords.) (2020): *Cuerpos, Territorios y Feminismos. Compilación latinoamericana de teorías, metodologías y prácticas políticas*, Abya Yala, IEETM eta Bajo Tierra Ediciones, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [https://miradascriticadeltorriodesdeelfeminismo.files.wordpress.com/2022/04/cuerpos-territorios-feminismos.pdf?force_download=true].
- DESAZKUNDEAKO FEMINISMOEN TALDEA (2013), «Decrecimiento Feminista: una perspectiva desde los comunes», *Dossieres EsF. El procomún y los bienes comunes*, 16 zk., 17.-23. or., (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [<http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/DOSSIERES-EsF-16-El-procom%C3%BAn-y-los-bienes-comunes.pdf>].
- ETXALDEKO EMAKUMEAK (2020): «Agroekofeminismo: la soberanía alimentaria y el feminismo de la mano», *Viento Sur*, 171. zk., 50.-54. or., (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [<https://vientosur.info/agroekofeminismo-la-soberania-alimentaria-y-el-feminismo-de-la-mano/>].
- EZQUERRA, Sandra, Marina Di Masso eta Marta Rivera (argit.) (2022): *Comunes reproductivos. Cercamientos y descercamientos contemporáneos en los cuidados y la agroecología*, Catarata, Madrid.
- GIL, Silvia L. eta hainbat egile. (2022): *Horizontes del feminismo. Conversaciones en un tiempo de crisis y esperanza*, Traficantes de Sueños eta Bajo el Volcán, Madril eta Mexiko Hiria.

- GUZMÁN ARROYO, Adriana (2019): *Descolonizar la memoria, Descolonizar los feminismos*, Tarpuna Muya, La Paz, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [<https://mujeresxmujeres.org.ar/wordpress/wp-content/uploads/2021/09/Descolonizar-Los-Feminismos-Feminismo-Comunitario-Antipatriarcal.pdf>].
- Hainbat egile. (2020): *Deriva feminista kondo bizitzea lortzeko bidean*, Colectiva XXK eta OMAL, Bilbo, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [http://omal.info/IMG/pdf/informe_definitivo_eus.pdf].
- HERRERO, Yayo (2023), *Toma de tierra*, Caniche argitaletxea, Bilbo.
- ISLA, Ana, Miriam Nobre, Renata Moreno, Sheyla Saori eta Yayo Herrero (2020): *Economía feminista e ecológica: resistências e retomadas de corpos e territórios*, Sempreviva Organização Feminista, São Paulo, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [https://www.sof.org.br/wp-content/uploads/2020/06/Economia-Feminista-e-Ecologica_SOFweb-1.pdf].
- LEYVA SOLANO, Xochitl eta Rosalba Icaza (koord.) (2019): *En tiempos de muerte: cuerpos, rebeldías, resistencias*, CLACSO, Cooperativa Editorial Retos eta Institute of Social Studies, Buenos Aires, San Cristóbal de Las Casas eta Haga, Herbehereak, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [https://biblioteca-repositorio.clacso.edu.ar/bitstream/CLACSO/15453/1/En_tiempos_de_muerte.pdf].
- LOBO, Natália (2022), *Las nuevas formas de los viejos mecanismos de apropiación de la naturaleza: control de cuerpos-tiempos-territorios y política feminista*, Sempreviva Organização Feminista eta Fundação Rosa Luxemburgo, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [https://rosalux.org.br/wp-content/uploads/2022/04/Nuevas_formas.pdf].
- NAVARRO, Mina Lorena eta Raquel Gutiérrez (2018), «Claves para pensar la interdependencia desde la ecología y los feminismos», *Bajo el Volcán*, 18 (28), 45.-57. or., (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [<http://www.apps.buap.mx/ojs3/index.php/bevol/article/view/1113>].
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2014), *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madrid, Traficantes de Sueños, (kontsulta: 2023ko urriak 12), hemen eskuragarri: [https://traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Subversi%C3%B3n%20feminista%20de%20la%20econom%C3%ADa_Traficantes%20de%20Sue%C3%B1os.pdf].

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.

17. Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artitzar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa¹, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Saila, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatibean bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurrezaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomeno. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKiko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatze erroka. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.
30. Munduko ekonomiaren erroka demografikoak. Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
31. Zaintza eta zahartzarora: XXI. mendeko errokkak. Matxalen Legarreta-Iza. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Uzuri Castelo Moñux. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Alaitz Uriarte Goikoetxea. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Maider Barañano Uribarri. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Marina Sagastizabal Emilio-Yus. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
32. Ekofeminismoak. Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea. Amaia Pérez Orozco. Colectiva XXX. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza.

